



for



WORKinn for World Maritime Week

Enplegu foroa | 2027ko martxoaren 10a

Parte hartzeko baldintza espezifikoak

Art. 1 Antolaketa

Art. 2 Ospakizunaren lekua, datak eta ordutegia

Art. 3 Onartutako parte-hartzaileak

Art. 4 Kontratazioa, parte hartzeko formatua eta prezioak

Art. 5 Enpresa erakusketariaren eskubideak

Art. 6 Erantzukizun zibileko aseguruak

Art. 7 Baldintza ekonomikoak eta ordaintzeko baldintzak

1. ANTOLAKETA

WORKinn Talent Hub erakundearen Enplegu Foroa antolatzea eta zuzentzea Bilbao Exhibition Centre SAr (BEC) eta Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Elkarte (AFM)ri dagokio. Komunikazio guztiak helbide honetara bidaliko dira:

BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A.	Tel.: +34 944 040 025
WORKinn Talent Hub	Tel.: +34 944 040 089
Ronda de Azkue, 1	workinn@bec.eu
48902 – Barakaldo	www.workinn.es

2. OSPAIZUNAREN LEKUA, DATAK ETA ORDUTEGIAK

WORKinn for World Maritime Week Bilbao Exhibition Centre-BECen egingo da (Ansio-Barakaldo, Bizkaia) eta honako hauek osatzen dute:

- ENPLEGU FOROA: 2027ko martxoaren 10a

Ordutegia 09:00etatik 13:00etara da. Bisitaren ordutegian, standak behar bezala artatuko da.

3. ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEAK

Honako enpresa hauek eskatu ahal izango dute parte hartzea, baldin eta beren jarduerak sektore hauetan sartuta daudela uste bada:

- Enpresa handiak.
- Enpresa txiki eta ertainak (ETEak).
- Startupak.
- Hautaketako eta giza baliabideetako aholkularitza-enpresak.
- Erakunde publikoak.

- Ingeniaritzak
- Unibertsitateak.
- Lanbide Heziketako ikastetxeak.
- Zentro teknologikoak.
- Merkataritza-ganberak.
- Tokiko garapen-agentziak.
- Enpresaburuen elkarteak.
- Administrazio publikoak.

4. KONTRATAZIOA, PARTE HARTZEKO FORMATUA ETA PREZIOAK

Kontratatzea

Kontratazioa egiteko, WORKINN TALENT HUBko Zuzendaritzara bidali beharko da **parte hartzeko eskabidea**, behar bezala beteta. World Maritime Week 2027an enpresa parte-hartzaile edota babesle eta partnerrentzat sartutako zerbitzua. Parte hartzen ez duten gainerakoei **175 €+ % 10eko BEZa** ordainduko zaie.

Eskabideak jasotzen diren hurrenkeraren arabera izapidetuko dira, betiere eskaeraren eta erabilgarri dagoen lekuaren arabera..

Erakundeak beretzat gordetzen du esleitutako azalera edo kokapena aldatzeko eskubidea, inguruabarrek hala eskatzen badute, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

WORKinn for World Maritime Week-en, parte hartzeko guneak enplegu-eskaintzak, aukera profesionalak eta talentua erakartzearekin, garatzearekin eta kudeatzearekin lotutako edukiak hedatzeko baino ez dira izango. Ezingo da helburu horrekin zerikusirik ez duen produkturik, zerbitzurik edo jarduerarik sustatu.

Parte hartzeko formatua:

Formatua: WORKinn for WMW eremuan integratua



- Espazioa
- Goi-mahaia
- 3 taburete
- Entxufe 1
- Logorako metakrlilatoa mahaian
- Aseguruak barne

Zerbitzuen kontratazioa:

Zure standerako behar dituzun aukerako zerbitzuak kontratatzeko, honako helbide honetara jo dezakezu zuzenean: serviciosworkinn@bec.eu

5. ENPRESA ERAKUSKETARIAREN ESKUBIDEAK

Kontratatutako azaleraz eta standaz gain, zure partaidetzak kostu gehigarririk gabeko zerbitzu hauek hartzen ditu:

- "Erabiltzailea" eta "Pasahitza", web-orrian parte hartzen duten enpresen eremu pribatura sartzeko: www.workinn.es
- Erakusketariaren akreditazioak. Enpresa parte-hartzaileen eremu pribatuan eskatu beharko ditu ekitaldia baino lehen, BECera sartzea errazteko.
- Enpresa erakusketariaren profil osoa eta haren lan-eskaintzak argitaratzea.
- Sustatu zuen parte-hartzea. WORKinn Talent Hub-en logoa deskargatu ahal izango duzu webgunean eta zure komunikazioetan sartu, Enplegu Foroan zaudela nabarmentzeko

6. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

BECek ebentu honetarako kontratatuko duen Erantzukizun Zibileko Aseguruak, BECeko Partaidetzari buruzko Araudi Orokorraren 33. artikuluekin bat etorritik, oinarritzko ezaugarri hauek izango ditu: - Oinarritzko estaldura: Ebentuen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte materialak eta gorputzekoak, eta berariaz kanpo geratuko da lan-mendekotasuna duten erakusketarien eta/edo hark azpikontrataturako langileen lan-istripuen ondoriozko erantzukizun zibila. - Kalte-ordainaren muga: 1.200.000€ istripuengatik eta ebentuan gertatutako ezbehar guztientzat.

Erakusketariek, gainera, beren legeria espezifikoaren arabera hala eskatzen den ondasunen edukitzarako, erakusketarako edo erabilerarako aseguru gehigarriak eduki beharko dituzte.

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

Jasotako inskripzioak erakusleari bere kokapena jakinarazi eta berehala fakturatuko dira, eta ordainketa berehala egin beharko da banku-transferentzia bidez.

Ordainketak banku-transferentzia bidez egingo dira BILBAO EXHIBITION CENTREren kontura, banku-egiaztagiria erantsita:

BBVA: ES29 0182 1290 3802 0150 4440 SWIFT: BBVA ES MM XXX

KUTXABANK: ES52 2095 0611 0091 0588 0388 SWIFT: BASK ES 2B XXX

Partzipazioa ezeztatzen bada, idatziz jakinarazi beharko zaio: workinn@bec.eu Kasu horretan, erakusketariak ordaindutako kopuru guztiak galduko ditu.